

Atzerriko ikasle berriak Ingeniaritza Fakultatean – Mondragon Unibertsitatea

2013/02/12

Mundu osoko 33 ikasle iritsi berri dira Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikora, udaberriko seihilekoa osatzeko asmoz. Elkartrukeko ikasle bezala onartuak izan diren gazte hauek, Polonia, Mexiko, Txina, Turkia, Txekiar Errepublika, Italia, Frantzia, Eslovakia eta Indiakoak dira, eta seihileko honetan ikasgaiak edota proiektuak egingo dituzte unibertsitateko laborategi edo inguruko enpresetan. Ikasle gehienak uztaiera arte izango dira gurean.

Otsailaren 5ean izan zen atzerriko ikasle hauen harrera eta ongi etorria. Egun horretan Mondragon Korporazioa gertutik ezagutzeko aukera izan zuten, bertaratu eta aurkezpen video baten bitartez. Ondoren, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko instalazioak bisitatu, erabilgarria izango zaien informazioa jaso eta goiz lanpetuaren ondoren, amaitzeko, ikasle denak fakultateko kantuan lunch batez gozatzeko aukera izan zuten.

Ongi etorri denei! Zuen egonaldiaz gozatuko duzuela espero dugu!



Ikasle Trukea